

BEZEROEKIN HARREMANAK

Urte berean "Rage Room"-era 3 aldiz edo gehiagotan etortzen bazara, %30eko deskontua izango duzu: Gure bezeroen leialtasuna saritzeko, esperientzia errepikatu nahi dutenentzat deskontu eskusibo bat eskaintzen dugu. Horrela, bezeroei gure zerbitzuez maizago gozatzeko aukera ematen diegu prezio hobean.

Arreta atsegina eta ulerkorra: Bezero gehienek emozioak husteko edo eguneroko estresari ihes egiteko espazio bat bilatzen dute. Gure langileen tratu atsegin eta enpatikoak laguntza-ingurune bat sortzen du, non bezeroek emozioak modu seguruan eta askatasunez askatu ahal izango dituzten.

Eskaintza bereziak lagun-taldeentzat, familientzat edo talde-ekitaldientzat: Gure zerbitzuak hainbat pertsonak aldi berean gozatzeko aukera eskaintzen du.

Talde-esperientziak sustatzeko, prezio bereziak eta eskaintza bereziak prestatzen ditugu, lagunek, familiek edo lankideek esperientzia ahaztezina partekatu dezaten.